
Alegia klasikoak



Mendillorri BHI_ Hizkuntza klasikoen mintegia

2017-18

Euskal ahozkotasuna tradizio klasikoari eutsiz

Aurtengo ikasturtean Batxilergoko 1.mailako Oratoriako ikasleek alegia klasikoak landu dituzte “Ahozko hizkuntza gelan irakastea” hezkuntza proiektuaren barnean, bere irakasleak ikastaro horretan eman zuelako izena.

Horretarako, alegia literatur-genero gisa ezagutu, alegia klasikoen euskal itzulpena, Bixenta Mogel-ek egina, irakurri eta bere eran egokitzea jendaurrean kontatzeko izan dute eginbehar.

Lan honen bitartez, geure institutuan gauzatu den proiektu polita, nire ustez, plazaratuko nahi dizuegu.

Bideo grabazioak egin zaizkie ikasle guztiei eta testuekin batera, ikusi ahal izango dituzue haien izenetan klikatuz.

Eskerrik asko nire ikasleei emandako laguntzarengatik,
Eskerrik asko jarritako gogoarengatik eta
Zorionak emaitzarengatik.

Amaia Zubillaga, Latin eta Oratoriako irakaslea.

Alegia, tradizio handiko literatur-generoa

Alegia ekialdean jatorria duen literatur-genero herrikoia da. Bertan, animaliak edo landareak izaten dira narrazio laburraren protagonistak. Gainera, kontakizun horien amaieran irakaspen morala agertu ohi da.

Mendebaldeko literaturan, Esopo dugu lehenengo alegiagilari, Grezian; Erroman, Augustoren garaian, Fedro. Eta orduz geroztik, ugari izan dira genero hau jorratu duten europar idazleak: La Fontaine frantsesaz, G. Lessing, alemanieraz, J. Gay, ingelesaz edo Samaniego, gazteleraz, besteak beste.

Euskarari dagokionez, Bizenta Mogelek (1782-1845) leku berezia betetzen du euskal literaturan: alde batetik, bera izan zelako alegiak euskarara ekarri zituen lehenengo idazlea, eta bestaldetik, euskeraz idatzi lehenengo emakumea izan zelako, bere garaian ohikoa ez bazen ere.

Alegiak ez dira soilik entretenimendurik; ez dira soilik haurrei zuzenduriko ipuinak. Haien atzetik mezua kritikoa eta didaktikoa aurkitzen dugu, Mogel-en garaian, baita gaur egun ere bizitzara aplikagarria. Animaliek eta landareek esaten digutenaz haratago joan beharra dago.

Hona hemen ikasleek egindako bertsioak. Disfruta itzazue!!

1. Aita eta seme gaiztoa

Guraso batek, seme oker eta gaizki hezi bat zeukan. Horrek nahigabe handiak ematen zizkion, eta askotan, negarra eragiten zion aitari. Gehienetan gelditzen zen gauez etxetik kanpo. Edozer agintzen bazion, aitari sorbalda eman, eta nahi zuena egiten zuen; horrelakoetan, aita ez zekien zer egin semearekin. Semearengatik, morroi askok atsekabe handiak eramaten zituzten ere. Horiei kontatu zien aita ipuina.

Nekazari batek mardul eta hezi gabea zen idia zeukan. Apal zedin, beste idi batekin uztartu zuen. Ikusi zuenean idiskoak, lepoa uztarpean, eta ezin zuela burua jaso nahi bezala, indarka eta ostikoka hasi zitzaion beste idiari. Nekazariak akuilua hartu, eta galantak ematen zizkion hezi gabeko idiari.

Ez zaitut nik uztartu zoruan lurra aratzeko, baizik eta soilik zure lepo gogorra hesitzeko.

Horrela, pixkanaka, akuiluaren bidez hezi egin zuen, eta uztarria erakutsita, burua makurtuta hurbildu zitzaion idia.

Ipuin honek esan nahi du umeak, lepo biguna duten bitartean, gaztetatik uztartu edo hezi behar direla; ekarri behar

direla onez eta gaitzez esanak egitera, gurasoei lotsa gordetzera eta etxeari begiratzera.

Hau egiten ez bada, lepoa gogortzen zaie, eta ezin dira gero eskura ekarri. Gurasoen kontra gogortzen dira; lotsa galduta irtetan dira, bizitza txarrekoak eta atsekabe asko ematen dituzte. Hau jakin izan zuen lehen aipatu dugun aitak, baina berandu.

Uztarria gaztetatik daraman umea

izango da ume ondo hazia.

Gelditzen bazaio idun gogorra,

berandu etorriko da zigorra.

Javi Prados eta Arantza Ergüín

2. Otsoa eta kurulloa

Behin batean, sarritan bezala, Otsoa haragia jaten ari zen bitartean, hezur bat trabatu zitzaion eztarrian. Otsoa itotzen zegoen bitartean, zorionez, Kurulloa ikusi zuen:

- *Zatoz hona - esan zion Otsoak kurulloari - lagun nazazu, mesedez! Zuk duzun lepo luzearekin mokoa eztaurraino iritsiko zaizu; eta horrela aterako didazu trabatuta daukadan hezurra. Hori egiten baduzu, ez dut inoiz ahaztuko; eskertuta edukiko nauzu; horrela jakingo dut zuri bizitza zor dizudala; lagunak izango gara eta nire beharra baldin baduzu beti lagunduko dizut, baita ordainsari bat ere.*

Kurulloak Otsoaren hitzak sinistu zituen beste eginbeharrik ez zituelarik. Otsoak ahoa zabaldu zuen; kurulloak mokoa eztaurrain sartu eta hezurra atera zion. Otsoa, berriz, osasuntsu gelditu zen. Orduan Kurulloak esaten dio:

- *Nire ordainsaria eman behar didazu!*

Otsoak bere burua osasuntsu eta arriskurik gabe ikustean hau erantzun zion:

- Ez al dizu lotsarik ematen niri ordainsari bat eskatzeak? Zure bizitza nire hortzen artean egon da; ahoa itsi izan banu, hilda egongo zinakete. Eskerrak eman beharko lizkidazuke nire ekintz honengatik.

Oihana Alfaro, Beñat Ayerra eta Unai Oyeregui

3. Eulia eta Mandoa

Mando batek gurdia zeramala, bizkarrean euli gogaikarri bat jarri zitzaion eta hau esan zion:

- *Mando itsusi eta astuna, ibil zaitez arinago; bestela nire akuiluarekin odola atera eta bizkortuko zaitut.*

Mandoari haserrarazi zion euliak modu harro horretan hitz egiteak eta hau erantzun zion:

-*O pizti zuhur, kiratsu eta aspergarria! Ezin izango didazu kalterik egin; hala ere, ez nau larritzen zure akuiluak odol pixka bat ateratzeak. Nire gainean dihoan mandazain honen zigorrak beldur gehiago eragiten dit. Honen zigorrak eta zartailuarekin ematen dizkidan zartadak sortarazten dizkit zauri handiak. Hau bai dela beldurgarria!*

Ipuinak irakasten die handikiei badutela zer beldur izan nondik edo handik.

Txikiak noizbaitetan harrotzen dira;

Eta handiak ernegatzen dute.

4. Azeria eta mahatsak

Etxe baten ondoren Azeria heldu zen eta mahatslandare hazi bat zegoen, etxearen horman itsatsita. Goiko aldean mahats mordo ederra zegoen.

Mahatsak ederki helduak zeuden, eta azeriari jateko gogo bizia etorri zitzaion. Alde guztietatik ibili zen, nondik igo zezakeen etxearen horma begiratzen, mahats mordo ederki helduak jateko. Ez zuen igo biderik aurkitu.

Mahats landaretik igoko nahiz- esan zuen.

Baina, mahatsaren adartxoak, argalak eta sendotasun gabeak zirenez, igotzen saiatu zenean, lurrera erori zen. Ernegatu egin zen, nazka-nazka eginda zegoen, mahatsak ikusi eta ezin harrapatuz. Ez zuen bere porrota konfesatu nahi eta esan zion estalgarritzat:

Mahats horiek ez dira oraindik ondo heldu, jango banitu gaixorik jarriko nintzateke, beraz hobe ez jatea.

Ipuin honek adierazten du zuhurtasunaz errekonozitu behar dugula egiten ez dakigun hori. Horregatik, ondo da noizbait ezgaitasuna erakustea, eta behin ikasita, lehen ez genekiena egitea.

Carlota Sarratea eta Ainara Zamborán

5. Lehoia, behia, ahuntza eta ardia

Handi eta txikien arteko partekatzea, ez da inoiz berdina. Hala da esana, eta hala izana, irakasten digun bezala ipuin eder honek.

Behia, ahuntza eta ardia elkartu eta lagundu ziren behin lehoi batekin ehizan elkarren artean partekatzeko. Basoan zebiltzala, harrapatu zuten basahuntz bat.

Lau gara - esan zuten lehoiak ez ziren beste hirurek - eta laurdendu behar dugu basahuntz hau.

Geldi, geldi, dio lehoiak:

Ni naiz abere guztien buru eta nagusia; laurden bat zor zait alde honetatik; bigarren laurdena ere niri ere dagokit, sendoena naizelako; nik zuek baino arinago ibili naizenez, ez dit inork kenduko hirugarrena, eta niregatik izango ez balitz, ihes egingo zuten basahuntz guztiek; laugarrena ikusten duenari, jakin beharko du, bere etsaia izango naizela.

Beldurrak isildu zituen beste hiruak, eta ikasi zuten hurrengorako ez laguntzea, ez elkartzea lehoi sendo eta harroarekin.

Ipuin honek irakasten die gizon argalei, eta nekazariei, harremanetan ez sartzeko handiangoekin, horiek baitira

harroak, eta okerrak. Nekea izango da argalentzat; irabazia,
berriz, sendo dirudunentzat. Horiek gizenduko dira, nekazaria
argaltzen den denboran.

Lagunentzat hartu berdina;

handiagoa izango dela kaltea.

Gora igo nahi baduzu,

behera jaitsi beharko zara.

Naiara Ceballos, Maialen Sáez eta Marta Romero

6. Arranoa eta Azeria

Behin arranoak azeriari bere umeak harrapatu zizkion, hauek leize batean zeudela. Ikusirik azeriak ezin ziola arranoari aurre egin, negarrez eta eztikeriaz esan zion:

Hegazti guztien erregea zarena, errukitu zaitez nitaz; itzuli dizkidazu nire umeak? Zertarako emango diozu guraso bati honelako atsekabea?

Eta arranoak erantzun zion:

Ixil zaitez, lapur zital hori. Zenbat alditan harrapatu dituzu Oilo lokarturi bere txikitxoak gurasoen negarrei kasurik egin gabe? Inork ikusi ezin zaituen, kiratsu gaizto hori.

Horrela, arranoak azerikumeak bere habiara eraman zituen jaten emateko arranokumeei eta orduan, azeriak arranokumeak zeuden zuhaitzari sua ematea erabaki zuen. Lastoa, lar idorra ekarri zuen sua emateko. Sua eman zuenean, kea gorantz joan zen eta sugarrak handitzen joan ziren. Arranoak, bere habia eta bere umeak erreko zituela ikustean, esan zion azeriari:

*Azeri oker eta asmakaria, garaitu nauzu zure
jakintasunarekin; itzali ezazu sua eta zure umeak emango
dizkizut.*

Horrela, bueltatu zizkion kalterik gabe.

Alegiak irakasten du gehiago balio duela asko jakitea eta
ausarta izateak, indartsu eta sendoa izatea baino.

Toki goietan daudenak

eror daitezke behera;

Harrotu behar ez gara

Zori ordu honetan.

Maitane Galar eta Iruñe Muruzabal

7. Arranoa eta Azeria

Bazen behin zelaian idi lodi eta gizena ikusi zuen igel bat. Igelak uste izan zuen bere gorputza gizendu ahal zuela idi horren bezalako tamainara iritsi arte. Bere gorputza airez betetzen hasi zen eta pentsatu zuen asko hazi zela; beraz, bere umeari galdetu zion,

Idia bezalakoa naiz?

Bere umeak gutxiagoa zela erantzun zion. Berriz, bere gorputza puztu zuen puxika bat balitz bezala. Puxka eta indarka aritu eta azkenean lehertu zuen larrua etenda.

Ipuin honek erakusten digu ez garela harrotu behar handiagoa, ederragoa eta aberatsagoa izateko nahian

Haizez gizendua

laster da galdua.

Igotzen duenak goregi

jo beharko du behegeri.

Gaizka Aldabe

8. Txakurra eta haragi zatia

Txakur batek bere ahoan haragi zati bat zeukala, igaro nahi izan zuen ibai batetik bestera. Igeritan zihoala, ikusi zuen uretan ahoan zeraman okela zatiaren itzala, eta imaginatu zuen zela benetako haragia. Damu ematen zion ez harrapatzeak; eta ahoan zeukana ahazturik, murgildu eta harrapatzen saiatu zen. Horretarako, ahoa ireki zuen; eta erori zitzaion ahoan zeraman haragia; itzal hutsarik kolpe eginda, ez zuen ezer atera eta galdu zuen berea. Abiatu zen amorruez esaten:

zerk eragin nau gehiagoren bila joatea? Zori gaiztoan galdu dut nerea.

Ipuin honek esan nahi du bakean gorde behar dugula garbiro duguna; galdu ohi dela bide onez dagoena, gehiegi eduki nahian.

Hobe da, esaten ohi den moduan, etxatxori bat eskuan, Arranoa hegatua baino. Guztia bilatzea guztia galtzea da. Bakoitzak eutsi behar diola berearik, eta utzi bestearena.

Ane Martos eta Olaia Garcia de Amezaga

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 29an.

